


# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua aurea eraman ahal izateko, hainbat ekintza eta betebeharrak ezberdin egin beharko ditugu. Atal honetan, ekintza eta betebeharrak horiek zehaztu eta taldeko kideen artean banatuko ditugu.



Lehenik eta behin, fabrikazioa izango da jarduera nagusietako bat. Lehorgailuaren motorra berezia da, ahalik eta isilena izan behar delako. Horretarako, titanioa bezalako material sendoak erabiliko ditugu, iraunkorrak direlako. Erabiliko diren material berriak

probatu eta ondo daudela egiaztatuko dute teknikoeak.

Bestalde, materialak eta pieza erostea teknikoeak egingo dute, fabrikaziorako behar diren gauzak aurrez planifikatuz eta eskuratuz. Biltegia ondo antolatuta egoteak materialak galtzea edo apurtzea saihesten laguntzen du, eta pieza bakoitza non dagoen jakiteak lana asko errazten du. Gainera, biltegian sartzen eta ateratzen diren produktuak kontrolatuko ditugu, zenbat lehorgailu ditugun jakiteko eta noiz ekoiztu edo eskatu behar dugun erabakitzeko. Horrela, beti izango ditugu salgai lehorgailu nahikoa eta bezeroei behar dutenean erantzun ahal izango diegu, eta ondo antolatuta egoteak akatsak saihesten lagunduko digu.

Honekin batera, erosketen kudeaketa ere gure ardura izango da. Horrek esan nahi du fabrikaziorako behar ditugun material eta piezak aurretik erosi beharko ditugula. Adibidez, motorretarako piezak edo kanpoko piezak beharko baditugu... hori aurrez planifikatuko dugu noiz eta zenbat erosi, eta atzerapenak absentzian.



Gure lanaren zati bat izango da teknologia hobetzea. Talde osoak begiratu dituzten merkatuan dauden produktuak eta ideiak, gure lehorgailua ahalik eta isilena eta eraginkorrena izateko.



Lehorgaulua ezagutarazteko, publizitatea eta bezeroekin harremana marketinaren arduraduna ardura izango da. Bezeroen iritzia jasoko dute eta iradokizunak kontuan dizute. Aldi berean, MediaMarkt eta Carrefour bezelako denda handiekin komunikazioa izango dute, gure lehorgailua bertan saldu ahal izateko. Azkenik, diruaren kudeaketa funtsezko jarduera bat izango da, kudeaketa eta finantza-arduradunak gastuak eta sarrerak kontrolatuko ditu, dirua zaintzeko eta enpresak arazo ekonomikorik gabe funtzionatzeko.

Jarduera hauek guztiak ondo antolatuta eta modu egokian eginez, gure zaratarik gabeko lehorgailuaren proiektua behar bezala garatu ahal izango dugu eta merkatuan arrakasta izateko aukera handiena izango dugu.